

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Garraio Partzuergoa**

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren tituluen erabiltzaileei bidaiari-garraio publikoko zerbitzua emateko tasak arautzen dituen zerga-ordenantzaren aldaketaren behin-betiko onespena ematearen iragarkia.

2025eko abenduaren 2ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 231 zenbakian, argitaratu da «Bizkaiko Garraio Partzuergoko tituluen erabiltzaileei bidaiariaren garraio publikoa emateagatik tasak arautzen dituen ordenantza fiskala» aldatzeko behin-behineko erabakia jendaurrean jartzeko epeari hasiera ematen dion iragarkia, xedapen iragankor bat sartuz, eta Toki Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16.1 artikuluekin bat etorriz, bost (5) eguneko epean jendaurrean egon ondoren eta Kontseilu Nagusiak 2025eko abenduaren 18an egindako bileran behin-behineko erabakiaren aurka aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, aipatutako Ordenantzan behin betiko onartutako aldaketen testu osoa argitaratzen da:

**BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAREN TITULUEN ERABILTZAILEEI
BIDAIARI-GARRAIO PUBLIKOKO ZERBITZUA EMATEAGATIKO TASAK
ARAUTZEN DITUEN ZERGA-ORDENANTZA**

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretuaren, abenduaren 27ko 20/2022 Errege Lege Dekretuaren, ekainaren 28ko 5/2023 Errege Lege Dekretuaren, abenduaren 27ko 8/2023 Errege Lege Dekretuaren eta urtarrilaren 28ko 1/2025 Errege Lege Dekretuaren bitartez arautu ziren hiriko eta hiriarteko lurreko garraio publiko kolektiboari lotutako neurriak ezartzeko aurreikusitako epeak. Epe horiek betetzeko eta Energia eta Klima Plan Nazional Integratuak (PNIEC) aldaketa modalari nahiz deskarbonizazioari dagokien ezarritako helburuak lortzen laguntzeko, 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko otsailaren 20ra bitarteko aldiaren ezarritako dira bidaiariaren garraio publikoaren zerbitzua emateagatik erabiltzaileek ordaintzen dituzten tarifei dagokien gaur egun indarrean dauden neurriak.

Zehazki:

- Ordenantza honen 2. artikuluan jasotako 12 urtetik beherakoen salbuespena 14 urtetik beherakoei ere aplikatuko zaie 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko otsailaren 20ra bitarteko aldiaren.
- Ordenantza fiskal honen 4.1. eta 4.2. artikuluetan jasotako zerga-kuotak, Gazte tituluei dagozkienak, %50 murriztuko dira 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko otsailaren 20ra bitarteko aldiaren.
- Ordenantza fiskal honen 4.1. eta 4.2. artikuluetan jasotako zerga-kuotak, Gazte ez diren tituluei dagozkienak, %40 murriztuko dira 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko otsailaren 20ra bitarteko aldiaren.

Aldaketa hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, eta bere artikuluetan berariaz ezarritako ondorioak sortuko ditu.

Bilbon, 2025eko abenduaren 18an.—Zuzendari Nagusia, Roberto Muñoz García